

## Videoteca de Baketik

Baketik ha creado una videoteca de películas y documentales cuyo contenido tiene relación con la lucha por vivir y convivir éticamente. Su objetivo es exclusivamente educativo y no comercial. Baketik presta gratuitamente estas películas a quien lo solicite: centros educativos, grupos de tiempo libre, parroquias, ONGs, asociaciones de todo tipo, familias, cuadrillas de amigos/as... Cada película va acompañada de una breve guía didáctica como ésta. Su finalidad es facilitar el análisis y la reflexión sobre su contenido. En cada una de estas guías un/a colaborador/a de Baketik que ha visto la película ha elaborado dos de sus apartados: «temática» y las «preguntas antes y después de su visionado». Es la sugerencia que nos hace esta persona para ver esta película. Si quieres tú también puedes colaborar enviándonos tus opiniones sobre películas que te hayan gustado. (Más información en [www.baketik.org](http://www.baketik.org))

## Temática

Franquismo, verdad, justicia y reparación, memoria.

**Franquismo.** Este episodio es conformado tristemente por desapariciones forzadas, tortura, fosas comunes y demás atrocidades ocurridas en tiempos de la dictadura franquista (1939-1975), en que se cometieron graves crímenes de lesa humanidad.

**Verdad, justicia y reparación.** La Ley de Amnistía de 1977 impuso la "Ley del olvido". Esta ley bloqueó cualquier posibilidad de investigar los crímenes del franquismo y por lo tanto llevar ante la justicia a los victimarios y reparar a las víctimas. Han pasado 80 años desde la Guerra Civil y el franquismo y a día de hoy, quedan más de mil fosas comunes por exhumar y otros muchas desaparecidas y desaparecidos a los que sus familias no han podido recuperar.

**Memoria.** La memoria colectiva, construir lo sucedido en el pasado y sacar a la luz todas las vulneraciones de derechos humanos cometidos en la Guerra Civil y en el franquismo es fundamental para entender nuestro presente y construir un futuro de paz y garantizar la no repetición.

## Sugerencias para ver y escuchar la película

Una película se puede ver y escuchar de muchas maneras. Ofrecemos unos puntos de referencia. Concretamente, sugerimos ver y escuchar la película...

**...hacia adentro.** Reflexionar sobre lo que la película nos sugiere en primera persona y sobre las preguntas que nos plantea en nuestra propia vida. No pretendemos buscar respuestas definitivas, atendemos a las resonancias que nos deja.

**...hacia fuera.** Promover un coloquio sobre la película en familia o en grupo. No se trata de llegar a conclusiones. Compartimos lo que hemos sentido y percibido e intentamos escuchar y entender la percepción diferente de los otros.

**...no solo con la cabeza,** también con el corazón. Se trata de dejar por un momento a un lado los prejuicios ideológicos o ideas preconcebidas para que, al hilo de lo que nos cuenta la película, puedan hablar los sentimientos.

**...y después de algún tiempo repensar.** Estar atentos al poso que la película deja después de unos días. Ese «poso» es una impresión en la que se funden nuestra reflexión sobre lo que hemos visto y la vida propia que la historia cobra en nosotros/as.

## Algunas preguntas...

### ...antes de la película

- Sobre el Franquismo. ¿Qué sabes del Franquismo? ¿Qué te han contado en casa al respecto?
- Sobre la verdad, justicia y reparación. ¿Qué crees que significan estas palabras? ¿Con que temas los relacionarías?
- Sobre la memoria. ¿Qué es la memoria? ¿Qué diferencia creéis que hay entre memoria e historia?

### ...después de la película

- ¿Qué es lo que más te ha impactado del documental? ¿Cuáles son los sentimientos que te han suscitado?
- Volviendo a las preguntas del principio qué añadiríais a los conceptos de verdad, justicia, reparación y memoria?
- ¿De quién es la responsabilidad de recordar y reparar a las víctimas? ¿Cuál es el papel de la sociedad para con las víctimas?
- ¿Qué te llevas de este documental?

## Zeurekin eta besteekin bizitzeko zinema

# El silencio de otros



# El silencio de otros

## Ficha técnica

TÍTULO ORIGINAL: El silencio de otros.

AÑO: 2018.

DURACIÓN: 95 min.

PAÍS: España.

DIRECCIÓN: Almudena Carracedo, Robert Bahar.

REPARTO: Documental.

PRODUCCIÓN: Coproducción España-Estados Unidos-Francia-Canadá; Semilla Verde Productions, Lucernam Films, American Documentary POV, Independent Television Service, Latino Public Broadcasting (LPB), El Deseo.

## Sinopsis

La película, filmada a lo largo de seis años con un estilo de cine directo e intimista, acompaña a víctimas y supervivientes del régimen franquista involucrados en la denominada "Querrela Argentina" que se puso en marcha el 14 de abril de 2010 ante los tribunales de justicia de Argentina. El objetivo de esta acción legal era conseguir que se investigara los crímenes de lesa humanidad cometidos por los integrantes de la dictadura franquista, se identificara a sus responsables y se los sancionara penalmente.

baketik



baketik

943-25 10 05

[www.baketik.org](http://www.baketik.org)

## Baketik-en bideoteka

Baketik-ek geurekin eta besteekin etikoki bizitzaarekin zerikusia duten filmen eta dokumentalen bideoteka bat sortu du. Helburu hezigarria dauka soilik, ez komertziala. Baketik-ek doan uzten dizkie pelikulak eskatzen dituztenei: ikastetxeak, aisialdi taldeak, parrokiak, GKEak, mota guztietako elkarteak, familiak, lagun taldeak... Pelikula bakoitzak hau bezalako gida didaktiko bat darama. Edukiari buruzko azterketa eta gogoeta erraztea du xede. Gida bakoitzean pelikula ikusi duen Baketik-eko kolaboratzaile batek bi atal egin ditu: «gaia» eta «galderak pelikula ikusi aurretik eta ondoren». Hau da pertsona honek pelikula zeuk ere parte har dezakezu gustatu zaizkizun zenbait pelikulen iritziak bidalita. (Informazio gehiago [www.baketik.org](http://www.baketik.org) webgunean)

## Gaiak

Frankismoa, egia, justizia eta erreparazioa, memoria.

**Frankismoa.** Garai hau, zoritxarrez, behartutako desagertzeek, torturak, hobi komunek eta diktadura frankistaren garaian (1939-1975) gertatutako gainerako basakeriek osatu zuten eta, frankismoak orokorrean, giza eskubideen urraketa larriak eragin zituen.

**Egia, justizia, erreparazioa.** 1977ko Amnistiaren Legeak "ahantzuraren legea" ezarri zuen. Lege hoinek frankismoaren krimenak ikertzeko edozein aukera blokatu zuen, eta, beraz, biktimarioak justiziaren aurrera eraman eta biktimak erreparatzeko aukera oro ukatu zuen. 80 urte igaro dira Gerra Zibila eta frankismoa gertatu zirenetik eta, gaur egun, desagertuak kontaezinak dira eta mila hobi komun baino gehiago daude oraindik ere, eta familiek ezin izan dituzte bertan hobiratuak dauden gorpuak berreskuratu.

**Memoria.** Memoria kolektiboa, iraganean gertatutakoa eraikitzea eta Gerra Zibilean eta frankismoan eman ziren giza eskubideen urraketa guztiak argitara ateratzea funtsezkoa da gure oraina ulertu, bakean eta bizikidetzan oinarritutako etorkizun bat eraikitzeko eta gertatutakoa berriz ere ez errepikatzeko.

## Filma ikusteko eta entzuteko iradokizunak

Pelikula bat modu askotara ikus eta entzun daiteke. Erreferentzi puntu batzuk eskaintzen ditugu. Zehazki pelikula modu honetara ikustea eta entzutea iradokitzen dizugu:

**...barrura begira.** Gutako bakoitzari esanguratsu egiten zaigun horri buruz eta gure bizitzan bertan sorrarazten dizkigun galderei buruz hausnartu. Helburua ez da betirako erantzunak aurkitzea, uzten dizkigun arrastoei erreparatzea baizik.

**...kanpora begira.** Taldean edota familian elkarrizketa sustatu. Kontua ez da ondorioetara iristea. Hauteman eta sentitu duguna konpartitzea, eta besteen hautemate ezberdina entzuten eta ulertzen saiatzea da.

**...ez bakarrik arrazoiarekin,** baita bihotzarekin ere. Une batez aurreiritzi ideologikoak eta edo aurrez ditugun ideiak albo batera utzi, pelikulak kontatzen digun horren harira, sentimenduek hitz egin dezaten.

**...eta denbora baten buruan,** berriz ere pentsatu. Adi erreparatu egun batzuen ostean pelikulak utzitako arrastoari. Arrasto hori ikusi dugunari buruzko hausnarketak eta istorioak gugan hartu duen biziak sortutako inpresioa da.

## Hainbat galdera...

### ...pelikula ikusi aurretik

·Frankismoari buruz. Zer dakizu frankismoaz? Zer kontatu dizute etxean horri buruz?

·Egia, justizia eta erreparazioari buruz. Zein da zuen ustez hitz hauen esanahia? Zerekin lotuko zenituzkete?

·Memoriari buruz. Zer da memoria? Ze desberdintasun dago zuen ustez memoriaren eta historiaren artean?

### ...pelikula ikusi ondoren

·Zer eragin dizu zirrara gehien? Zer sentitu duzu?

·Hasierako galderetara itzuliz: zer gehituko zeniekete egia, justizia, erreparazioa eta memoria kontzeptuei pelikula ikusi ondoren?

·Noren erantzukizuna da biktimak oroitzea eta erreparatzea? Zein da gizartearen papera biktimekiko?

·Zer daramazue dokumental honetatik?

Cine para **vivir y convivir**

# El silencio de otros



# El silencio de otros

## Fitxa teknikoa

JATORRIZKO IZENBURUA: El silencio de otros.

URTEA: 2018.

IRAUPENA: 95 minutu.

HERRIALDEA: Espainia.

ZUZENDARIA: Almudena Carracedo, Robert Bahar.

AKTORE-ZERRENDA: Dokumentala

EKOIZPEN-ETXEA: España-EEEBB-Frantzia-Canada ren arteko koprodukzioa; Semilla Verde Productions, Lucernam Films, American Documentary POV, Independent Television Service, Latino Public Broadcasting (LPB), El Deseo.

## Sinopsia

Sei urtean filmatutako dokumental honek zinema-estilo zuzen eta intimista du, eta 2010eko apirilaren 14an Argentinako justizia-epaitegietan abian jarri zen "Argentinako kereila" delakoan sartuta dauden erregimen frankistako biktimei eta bizirik atera zirenei laguntzen die. Lege-ekintza horren helburua zen diktadura frankistako kideek egindako gizateriaren aurkako krimenak ikertzea, arduradunak identifikatzea eta penalki zigortzea.

**baketik**



ETORKIZUNA ORAIN  
Es futuro



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO  
SECRETARÍA DE JUSTICIA  
EUSKAL JUSTIZIA  
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,  
JUSTICIA Y POLÍTICA SOCIAL

**baketik**

943-25 10 05

[www.baketik.org](http://www.baketik.org)